



# Zaborraren kudeaketa

**A**pirilak 5ean izango dira EAEko hauteskundeak. Iñigo Urkullu lehendakariak iragarri zuen. Ez edozein egunetan. Zaldibarreko zabor-tegiaren luizia gertatu eta lau egunera. Tragedia gertatu osteko bere lehen agerraldian.

Aurrerapenerako argudio ofiziala: herritarrok kanpaina amaigabetik askatzea. Alta, ez da puntako analista izan behar atzean Euzkadi Buru Batzarraren kalkulu elektoralak zeudela ebazteko. Orduan, ez dakit zer ondorioztatu: edo ez zuten Zaldibarreko krisiaren larritasuna ondo neurtu, ala fede handia zuten zaborra estaltzeko gaitasun komunikatiboan, ala harrokeriak itsutu zituen. Ziurtasun handia behar baita horrelako krisi baten aurrean, hausnartutako abantailazko agertokia aldatu ez dela ebatzi eta hauteskundeen deialdia berdin mantentzeko.

Larrialdi-egoeran isiltasuna bidelagun eskasa izan ohi da. Areago ondorioak ikusgarriak eta ukigarriak –baita usaingarri eta irensgarriak ere– direnean. Hildakoak daudenean. Beren gorpuak agertu zain familiak sufrimendu latzean daudenean. Ideologikoki estimu handian ez dudana, baina krisi-komunikazioan aitortutako esperientzia duen Frank Luntz aholkulariak dio isiltasuna portaera ez-zuzenaren onarpen tazitua

Hauteskundeak oso hurbil daude, eta Zaldibarren oihartzuna hautetsontzietaraino iritsiko dela, ez da zalantzarik. Nola, ikusiko dugu

dela. Eta horixe izan zen Jaurlaritzaren lehen hautua.

Kudeaketa penagarriaren aurrean gaude. Eta ez naiz komunikazioaz bakarrik ari. Hasieratik dario kiratsa zabor-tegi horretan gertatzen zenari, eta zenbat eta gehiago jakin, jendearen haserreareagotuz doa. Nola ez du honek hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida berriro lehen lerrora ekarriko, gaur egungoak gainezka egin badu, kaka irensten ari bagara.

Jendartean beldurra ere badago, noski. Bereziki hurbilen dauden herrietan. Erakundeetan konfiantza galdu da. Iturri ofizialak ezkutuan, informazio kontra-jarria eta inprobisazioa izan dira nagusi. Gaur: ez dago hondakin arriskutsurik; bihar: erreskate lanak eten. Gaur: ez du airean aparteko eraginik izan; bihar: itxi etxeetako leihoak. Orain: lasai, ez da ezer gertatzen, atera haurrak parkera; eta geroxeago: lehen mailako futbol par-



ESTITXU GARAI ARTETXE  
EHU-KO IRAKASLEA

tida bertan behera utzi. Jendearen osasunean eragin zuzena duten gaietan ezin da horrelako zalantzati eta ilun jokatu.

Nabarmena da, hasierako informazio-lorrinaren ostean, gobernukide diren alderdi jeltzalea eta alderdi sozialista komunikatiboki egoera berbideratu nahian hasi direla. Badirudi batik bat EAJ dela gestio txarraren ondorioak pairatzen ari dena. Bere markari, eta ondorioz boto aurreikuspenei, negatiboki eragin diezaioketen bi alor bideratu eta landu nahian dabilta. Batetik, Urkullu lehendakariaren irudia. Bere hurbiltasun falta nabaria izan da, harrokeriaz josia eta gizatasunik gabea. Urkulluk aurretik zuen hotz itxurarekin bat egiten du erabat erakutsi duen jarrerak. Oso hautemate kaltegarria hautagai baten tzat. Bestalde, EAJren marka irudiaren indar-gune nagusietakoa da kudeatzaile on gisa pertzibitua izatea. Gertakariak eta ebidentziek, kasu honetan, kontra-koa adierazten dute.

Hauteskundeak oso hurbil daude, eta Zaldibarren oihartzuna hautetsontzietaraino iritsiko da, ez dago zalantzarik. Nola, ikusiko dugu. Denon hobe beharrez espero dezagun egoera ahalbait arinen bideratzea eta erreskate lanak burutzea. Horrek ez du esan nahi, ordea, gertatutakoa ahaztu eta zurituko dugunik, batez ere, berriz gertatu ez dadin. ●